

Sagardo Foruma munduko adituen bilgune bilakatuko da

Sagarra, sagardoa eta sagardotegiak ardatz hartuko dituen 2. Sagardo Foruma antolatu du Usurbilgo Udala (Hernani eta Astigarra-gakoarekin batera) kide duen Sagardoaren Lurraldeak, azaroaren 23tik 25era Hernaniko Orona Ideon. Gertuko zein mundu zabaletik etorritako 21 adituek parte hartuko dute, sagardoaren lurralde honetan ospatuko diren sagardoari buruzko jardunaldiotan. Sagarra eta sagardoarekin erlazionatutako kultura, ekoizpena eta turismoaren inguruko jardunaldiak eskainiko dituzte.

Sagardogileak, Sagardoaren Lurraldeak biltzen dituen Astigarra, Hernani eta Usurbilgo Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren elkarlanaren emaitza da 2. Sagardo Foruma.

Sagar ekoizpenari eta bertakoa dugun produktuari, sagardoa nazioartean sustatzeko baliatu nahi dute hitzordua.

I. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa

Jardunaldion baitan, I. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa ospatuko da. 11 herrialde ezberdinetako jada izena emanda dauden ehunetik gora sagardo ezberdinek parte hartuko dute. 9 kategoriatan banatuko dute txapelketa: Euskal Herrian ekoiztutako sagardoa, sagardo natural asturiarra, sagardo tradizional frantsesa, sagardo tradizional ingelesa, gaur egungo sagardoak, "Premium" sagardo apardunak, apfelwein (sagardoa), zaporetako sagardoa eta udardoa edo izotzezko sagardoa.

Sona handiko mundu osoko epaileek osatuko dute epaimahaia. Kategoría bakoitzean



Bertako sagardoa nazioartean sustatzeko baliatu nahi dute hitzordua.

"Kategoriako onena" den sagardoa izendatuko dute, eta horien artean, "Lehiaketako onena". Sagardoak baloratzen munduko txoko ezberdinetako

epaileak jarriko dituzte. Epaimahaiaren dominak jasoko dituzte puntuazio altuena lortzen duten sagardoek:

■ Brontzekoa, 30-37 puntu

lortzen dituzten sagardoek.

■ Zilarrezkoa, 38-44 puntu lortzen dituzten sagardoek.

■ Urrezkoa, 45-50 puntu lortzen dituzten sagardoek.

2. Sagardo Foruma

Azaroak 23, osteguna

- 08:45 Akreditazio eta dokumentazioaren banaketa.
- 09:15 Ongietorria eta irekiera instituzionala.
- 09:30 Sagarrondoaren egoera Euskal Herrian.
- 10:00 Sagastien landaketa Süd Tirol-en.
- 10:30 Finca Gallinal Asturias-en.
- 11:00 Atsedenaldia.
- 11:30 Euskal Sagardoa J.D. berriaren aurkezpena.
- 11:50 Sektorearen jarduera ebolutiboa Euskadin.
- 12:10 Sagardoaren gaurko eta biharko erronkak.
- 12:30 Sagardoa Normandian.
- 12:50 Sagardoa Britainian.
- 13:10 Sagardoaren merka-

tua Ingalaterran.

■ 13:30 Sagardoaren merkatura Estatu Batuetan.

■ 13:50 Britainia, Normandia eta Euskal Herriko sagardoaren dastaketa.

Azaroak 24, ostirala

Sagardoaren turismoa: txotx esperientzia.

- 09:30 Euskadiko turismo gastronomikoa.
- 09:50 Sagardoaren turismoa San Sebastian Region-en.
- 10:10 Sagardoaren Lurraldearen aurkezpena.
- 10:30 Euskal sagardotegien ibilbidearen aurkezpena eta Petritegi, Oiharte eta Iparragirre sagardotegiak.
- 10:50 Sagardoaren tu-

rismoaren garapena Asturias-en.

■ 11:10 Castañon-eko eskaintza turistikoa: sagardoaren turismoa.

■ 11:40 Atsedenaldia.

■ 12:00 Mahai-ingurua: Sagardoaren Lurraldea, etorkizuneko erronkak:

Azaroak 25, larunbata

■ 09:00 I. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa. Dastatzaileen sagardo dastaketak.

■ 13:00 "Sagar Artean" dantza ikuskizuna.

■ 13:30 I. Nazioarteko Sagardo Lehiaketako sari banaketa.

Informazio gehiago eta izen ematea:

sagardoarenlurraldea.eus